

DEFINIZIOA Ekintza bat aktiboki eta bizkor **MARTXAN JARTZEA**, hori delarik hautabiderik egokiena eta abantailatsuena einkizunari nahiz gaiari ekiteko, **HAREN ONDORIOAK ONARTUAZ**.

EGOERA PRAKTIKOAK

Enplegua
bilatzea
norberaren kabuz
besteren kontura



UNAI ikasketak amaitzeko zorian dago eta irakasle batek arkitektura estudio batean dekoratzaile gisa aritzeko lan proposamena eskaini dio. Senitartekoei hots egiten dienean berria emateko, familiako lagun batek Enkarterrietako altzari enpresa handi bateko saltzaile baten oporraldian haren lanpostua betetzeko eskaintza egin diote. A zer arazoa! Zergatik pilatu dira aukera guztiak?. Norvegiar ala Euskadin egingo du lan. Norvegiak interesatzen zaion lana da eta ikasketa garrantzitsua eskaintzen dio, baita hizkuntzak hobetzeko aukera ezin hobea ere. Han ordean, senitartekoengandik urrun egongo da, eta denbora pasa beharko da handik alde egiteko. Bizkaian, aldiz, senitartekoengandik hurbil dago. Aldi baterako lana, baina horrela hasten da. Ezagutzen badute, egina izango du bidearen erdia. Azkenean, proiektu profesionalari lehentasuna ematea erabaki du. Ibilbidea Norvegiar hastea oso aberasgarria izan daiteke. Beti dago etxera itzultzeko denbora, eta gainera, gauzak erraztuko dizkion lan esperientzia onarekin. Norvegiako enpresara deitu du eskaintza onartzeko, eta Bizkaikora, une honetan ezin duela lana onartu, baina etorkizunean berriro haiekin harremanetan jarri eta bere kandidatura eskaintzea ez duela baztertzen adierazi die.

Enplegua



ANEK 10 urte daramatza besteren kontura lanean MARTINEZ AUTOESKOLAN, eta lanari beste norabide bat ematea ari da pentsatzen. Enpresaz aldatzea otu zaio, ofizioz aldatzea, eszedentzia eskatu edo bere negozioa zabaltzea. Enpresaz aldatzea oso aldaketa handia ez dela konturatu da, ofizioz aldatzea erakargarria iruditzen zaio, baina agian ez da bideragarria epe laburrean, behintzat, ez baitauka lan-eskarmeturik ezta prestakuntzarik beste alor batzuetan, eta denbora beharko luke prestatzeko. Gainera, gaitasun espezifikoak eskatzen ez duten jarduerak ez zaizkio interesatzen. Eszedentzia nahiko luke, baina epe laburrerako irtenbidea izango litzateke. Autoenplegua ez dela erraza iruditzen zaio, baina badaki negozioa martxan jartzeko orientabidea emateko adituak dituzten zerbitzuak daudena. Hori iruditzen zaio aukerarik onena, ordea, baina senitartekoei aholku eskatzea erabaki du. Laguntza eman, eta zalantzak azaldu dizkiote. Adituen zerbitzu batean hitzordua eskatu du, bere negozio asmoa martxan jartzeko orientabidea eman diezaioten.

Beste
alor batzuk



MAITEk Julia, bere ahizpa Nuriaren alaba, uztailaren 19an Santurtzin ezkonduko dela jakin berri du. Egun berean, Carlos, Marcosen loba, ezkonduko da Durangon. A zer buruhaustea. Senarrarekin komentatu eta erabaki nahi du: Familia biak poztu nahi ditut. Bateko zeremoniara eta beste bakoitzara joan gaitzke. Edo bakoitza bere familiararen ezkontzara joan gaitzke. Azkenean, senitartekoein egoteko aparteko aukera den arren, bakoitza bere familiakoaren ezkontzara joatea erabaki dute. Horrela gainera gastua txikiagoa izango da.

GOGOAN
IZAN

▶ Egoera OBJEKTIBOKI deskribatu.

▶ Hautabideak mahairatzerakoan ahal dela **AUKERA EZOHIKOETAN** pentsatu.

▶ Hautabide desberdinak **BALORATZEKO** behar besteko **INFORMAZIOA** duzula ziurtatu.

▶ Ez ahaztu **BESTE ERABAKI BATZUEK** ere har ditzakezula gertakarien norabidea **ALDATZEKO**, gauzak ondo ez badoaz.



inguralde

BARAKALDOKO UDAL GORENA Euzko Lehen
Organismo Autonomo ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO